

**DONOSTIA KULTURAN
EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLANA**

**PLAN DE NORMALIZACIÓN
DEL USO DEL EUSKERA
EN DONOSTIA KULTURA**

Aurkibidea / Sumario

Sarrera	4
Introducción...	
I.- Ingurune juridikoa	5
Contexto Jurídico	
1.- Arautegi orokorra	5
Normativa general	
2.- Donostia Kulturak hartutako erabaki eta neurriak euskararen normalizazioari dagokionean	6
Acuerdos y medidas adoptadas por Donostia Kultura en materia de normalización del euskera.	
II.- PLANAREN ARDATZAK	7
EJES DEL PLAN	
1.- Eragin eremua	7
Ámbito de aplicación	
2.- Eragin epea	7
Período de aplicación	
3.- Xede Nagusia	7
Objetivo principal	
4.-Helburu orokorrak	8
Objetivos generales	
5.-Oinarri nagusiak	9
Principios fundamentales	
6.- Metodologia	9
Metodología	
7.- Betekizunak	10
Deberes	
8.- Lehentasun komunikatiboak	11
Prioridades comunicativas	
9.- Antolakuntza egiturak	12
Estructuras organizativas	
10.- Planaren jarraipena eta ebaluaketa	14
Seguimiento y evaluación del plan	
11.- Baliabideak	15
Recursos	

III.- PLANAREN IRIZPIDEAK.....	17
CRITERIOS DEL PLAN...	
1.- Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak.....	17
Criterios de aplicación del uso de las lenguas oficiales	
2.- Lanpostuen hizkuntza baldintzak eta langileen hizkuntza gaitasuna.....	34
Condiciones lingüísticas de los puestos de trabajo y capacitación lingüística del personal	
IV.- NORMALIZAZIO EKINTZAK.....	36
ACTUACIONES DE NORMALIZACIÓN	

SARRERA

Donostia Kulturarentzat egiten den proposamen hau Euskara Zerbitzuak erakunde autonomiadunentzat eta Udalarentzat planteatu duen modu berean egin da. Halaber enpresa erakunde publikoek, apirilaren 15eko 86/1997 dekretuan xedatutakoa kontuan hartuz, euskara, gaztelania bezala, zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu beharko dute erakunde osoan.

Bestalde, gaztelania eta euskara Donostia Kulturako hizkuntza ofizialak izan arren, eta ofizialtasuna egiazkoa eta eraginkorra bilakatzeko bidean urratsak eman diren arren, begi bistakoa da lehenengoaren nagusitasuna Administrazioaren gaurko komunikazioetan.

Egoera hori orekatu nahian, Donostia Kulturak bere ibilbidean zehar, berebiziko ahalegina egin du langileak gaitzeko, eta bere langileak elebidunak izan daitezzen, hau da, bi hizkuntza ofizialen ezagutza izan zezaten. Aurreko normalizazio planetan hasitako bidea eten ez dadin eta egindako ahalegin handia paper erre bihurtu ez dadin, ezagutzatik erabilerarako jautzia ahal den neurrian egin nahian, ekintza-eremu desberdinetan hizkuntza irizpideak aplikatuko ditu eta euskara lan eta harremanetako hizkuntza ere izateko neurriak hartuko ditu, egindakoa sendotzeko premiazkoa baita euskararen erabilera indartzea barneko lan harremanetan eta erakundetik kanpora bideratzen direnetan

Donostia Kulturarako proposatu den dokumentua, Udalekoaren irizpide eta lehenetasun berberak kontuan izanik egin da.

INTRODUCCIÓN

La propuesta que se propone de cara a su implementación en Donostia Kultura se ha elaborado de acuerdo al patrón utilizado por el Servicio de Euskera de cara a los organismos autónomos y al propio Ayuntamiento. Igualmente, las entidades públicas empresariales de acuerdo con lo establecido en el decreto 86/1997, de 15 de abril, deberán garantizar que el euskera, al igual que el castellano, sea lengua de servicio en todo su organismo.

Por otra parte, siendo cierto que el euskera y el castellano, ambas, son lenguas oficiales de Donostia Kultura y aunque se han producido pasos en la consecución de la oficialidad, todavía hoy se mantiene la primacía del castellano en las comunicaciones.

En aras a equilibrar la situación de ambas lenguas, en Donostia Kultura se han realizado grandes esfuerzos para conseguir la habilitación lingüística de los trabajadores y trabajadoras de la institución, es decir en que tuvieran el conocimiento de las dos lenguas oficiales. Para que el camino andado no se trunque y para que el importante esfuerzo realizado no se convierta en papel mojado, al objeto de que, en la medida que se pueda, se de el salto del conocimiento al uso, aplicará los criterios lingüísticos en los distintos ámbitos de acción y tomará medidas para que el euskera también sea lengua de trabajo y de relación, puesto que, para asentar lo andado, urge reforzar el uso del euskera tanto en las relaciones de trabajo de carácter interno y en las que se producen desde la institución hacia el exterior.

El documento que se propone para Donostia Kultura ha sido elaborado con idénticos criterios y prioridades que el elaborado para el Ayuntamiento.

I.- INGURUNE JURIDIKOA CONTEXTO JURÍDICO

1.- Arautegi Orokorra

Euskal Autonomi Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean, euskararen erabilpena arauzkotzekoan dauka bere hastapeneko erreferentzia.

Lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela eskubidea herri-administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri-administrazioen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arauz, 1997ko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, araubidezko marko orokorra ezartzen du.

Eta laugarren xedapen gehigarriak honela dio:

“Laugarrena.– 1.– Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

2.– Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilita, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari emango diote.”

1.- Normativa general

La política de promoción del uso social del euskera de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca se enmarca dentro de lo establecido por la Ley 10/1982 básica de normalización uso del euskera.

Dicha ley establece el derecho de los ciudadanos y ciudadanas a relacionarse con la administración pública en la lengua oficial de su elección. Consiguientemente, establece también las obligaciones que atañen a los poderes públicos para garantizar el ejercicio de tal derecho sin límites ni obstáculos.

En desarrollo de lo dispuesto en las citadas leyes, el Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece el marco reglamentario general.

Y la Disposición Adicional cuarta del Decreto establece:

“Cuarta.– 1.– Las sociedades públicas y los entes públicos de derecho privado dependientes de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi que presten servicios públicos vendrán obligados a garantizar la utilización del euskera y del castellano en aquellos servicios que conlleven una relación directa con el usuario.

2.– Para ello dichas sociedades públicas y entes públicos de derecho privado, aplicando los criterios del presente decreto, estudiarán los objetivos lingüísticos que hubieran de ser de aplicación en cada uno de ellos, y adoptarán las medidas tendentes a su efectivo cumplimiento, dando cuenta de ello a la Viceconsejería de Política Lingüística”.

2003ko abenduaren 23an onetsitako Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

2.- Donostia Kulturak hartutako erabaki eta neurriak euskararen normalizazioari dagokionean.

Donostia Kultura Erakunde autonomo zela, hainbat erabaki eta neurri onartu zituen euskararen normalizazioari dagokionean.

Enpresa Erakunde Publiko bilakatu zenean, ondokoa jaso zen bere estatutuen bosgarren xedapen gehigarrian:

“Donostia Kultura enpresa erakunde publikoan bi plan hauek aplikatuko dira: alde batetik, “Donostia Kulturako Udal Patronatua” erakunde autonomoaren euskararen erabilera normalizatzeko plana, Donostia Kultura erakunde hau izatera igarotzean indarrean den plana, hain zuzen; eta, bestetik, “Donostiako Udaleko Kultur eta Turismo Ekintzetxea” erakunde autonomoaren euskararen erabilera normalizatzeko plana, hura desagertzean indarrean dena, hain zuzen.

Haiek garatu eta berritzeko, Donostia Kultura erakunde hau izatera igarotzean “Donostiako Kulturako Udal Patronatua” erakunde autonomoan indarrean den euskararen erabilera normalizatzeko planean ezarritako irizpide objektiboek jarraituko zaie”.

Dokumentu honetan jasotzen den plana, goian aipatutakoei jarraipena ematera dator.

El Estatuto de las personas consumidoras y usuarias, de 23 de diciembre de 2003, así como el Decreto sobre derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, de 1 de julio de 2008, reconocen a dichas personas el derecho a recibir la información relativa a bienes y servicios indistintamente en euskera o en castellano. En consecuencia, los organismos públicos garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias.

2.- Acuerdos y medidas adoptadas por Donostia Kultura en materia de normalización del euskera.

Cuando era un organismo autónomo Donostia Kultura adoptó distintas medidas y decisiones en materia de normalización del euskera.

En el momento de su transformación en Entidad Pública Empresarial, la disposición adicional de sus estatutos estableció lo siguiente:

“Serán de aplicación en el Ente Público Empresarial Donostia-Kultura el Plan de normalización del uso del euskera vigente en el Organismo Autónomo “Patronato Municipal de Cultura de Donostia-San Sebastián” en el momento de su transformación en este ente y el Plan de normalización del uso del euskera vigente en el Organismo Autónomo Centro de Atracción y Turismo del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián en el momento de su disolución.

Para su desarrollo y renovación se seguirán los criterios objetivos establecidos en el Plan de normalización del uso del euskera en el Organismo Autónomo Patronato Municipal de Cultura de Donostia-San Sebastián en el momento de su aplicación.”

El plan que recoge este documento sigue las directrices señaladas con anterioridad.

II.- PLANAREN ARDATZAK EJES DEL PLAN

1. Eragin eremua

Plan honen eragin eremuak Donostia Kultura hartzen du, honako ataletan banatuta

- Zerbitzu Orokorrak
- Liburutegiak
- Kultur Ekintza
- Casares-Tomasene eta Larratxo kultur etxeak
- Egia kultur etxea
- Intxaurren eta Larrotxene kultur etxeak
- Loiolako kultur etxea
- Okendo kultur etxea
- Lugaritz kultur etxea
- Ernest Lluch kultur etxea
- Aiete Kultur etxea
- San Telmo Museoa
- Festak
- Zinea
- Komunikazioa
- Antzerki eta dantza
- Musika
- Ekoizpena
- Zuzendaritza

2. Eragin epea

Plan hau onartzen da Donostiako Udalak 2013-2018 Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintza aldia onartu bitartean. Plan horretan erabakitzen denaren baitan, Donostia Kulturaren plan hau berraztertu eta berregokitu egingo da onarpenera berriro eramanez

3. Xede nagusia

Plangintzaren xede nagusia da Donostia Kulturaren hizkuntza ofizialen berdintasunera jotzea, euskara, beraz, lanerako hizkuntza izatea bere osoan: zerbitzu-hizkuntza herritarrekin, harreman-hizkuntza beste

1. Ámbito de aplicación

El ámbito de aplicación del plan comprende a Donostia Kultura, distribuido en las siguientes secciones:

- Servicios Generales
- Bibliotecas
- Acción Cultural
- Casas de Cultura Casares-Tomasene y Larratxo
- Casa Cultura Egia
- Casas Cultura Intxaurren y Larrotxene
- Casa Cultura de Loiola
- Casa Cultura Okendo
- Casa Cultura Lugaritz
- Casa Cultura Ernest Lluch
- Casa de Cultura Aiete
- Museo San Telmo
- Fiestas
- Cine
- Comunicación
- Teatro y Danza
- Música
- Producción
- Dirección

2. Período de aplicación

Este plan se aprueba hasta que se apruebe el 5. Período de Planificación (2013-2018) del Plan de normalización del Euskera del Ayuntamiento de Donostia. En concordancia con lo decidido en dicho Plan, este Plan de Donostia Kultura será objeto de revisión y de adecuación y se someterá de nuevo a aprobación.

3. Objetivo Principal

La principal finalidad del plan es tender a la igualdad de las lenguas oficiales en Donostia Kultura, y por tanto, que el euskera sea lengua de trabajo integral: lengua de servicio con la ciudadanía, lengua relacional con otras

administrazioekin eta Donostia Kulturako barruko lan-hizkuntza.

Eta hiru harreman horiek ezinbestekoak izanik euskararentzat, herritarrekiko da lehen erronka. Kalitatezkoa izan nahi duen erakunde publiko batek ehuneko ehunean bermatu behar du zerbitzua hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela.

Administrazioekiko komunikazioei dagokienez (harreman-hizkuntza), behar-beharrezkoa da erakundeen arteko koordinazioa, ez bakarrik euskararen presentzia ziurtatzeko baizik eta, adostasuna tarteko eta bideragarria denean, euskarazko harremanen alde egiteko.

Donostia Kulturako barruko lan hizkuntzari dagokionez, Donostia Kulturako barruko harremanetan, prestakuntza egokiaz baliatuta, euskararen erabilera areagotzen ahalegindu behar da etengabe. Gaitasunak ahalbidetzen duen neurrian, euskaraz egin daitekeena euskaraz egiten.

Helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea da, herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz beti, eta hain zuzen ere, horrexegatik eta horretarako bermatuz hizkuntza erabiltzeko aukera-berdintasuna.

4. Helburu orokorrak

Egitasmo honek helburu orokor hauek ditu:

- Donostia Kulturak herritarrekin dituen harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera osotasunean bermatzea.
- Irudi korporatiboan eta hizkuntza paisaian bi hizkuntza ofizialen presentzia osotasunean bermatzea euskarari lehentasuna emanez.
- Euskararen ahozko erabilera areagotzea, herritarrekiko jarduna erabat bermatuz eta

administraciones y lengua de trabajo dentro de la propia Donostia Kultura.

Siendo, sin duda, los tres ámbitos de relación imprescindibles para el euskera, el primer reto es el de la atención a la ciudadanía. Una entidad pública que pretenda ser de calidad debe garantizar íntegramente que está en condiciones de dar el servicio en cualquiera de las lenguas oficiales.

En lo que se refiere a las comunicaciones con las administraciones (lengua de relación), es muy necesaria la coordinación interinstitucional no sólo para garantizar la presencia del euskera, sino para de forma consensuada y siempre que sea viable, optar por las relaciones en euskera.

En lo que respecta a la lengua de trabajo de DK a nivel interno, utilizando la formación adecuada, debe tratar de incrementar el uso del euskera en las relaciones dentro de la organización. En la medida que la aptitud lingüística así lo permita, llevar a cabo en euskara todas aquellas labores y cometidos que sea posible.

El objetivo es, por tanto, pasar de una equiparación formal entre las dos lenguas oficiales a una igualdad material, respetando siempre las opciones lingüísticas de la ciudadanía; lo cual requiere y justifica precisamente, garantizar una igualdad de oportunidades a la hora de utilizar las lenguas.

4. Objetivos generales

El presente plan cuenta con los siguientes objetivos:

- Garantizar plenamente el uso de las dos lenguas oficiales, tanto de modo oral como escrito, en las relaciones de Donostia Kultura con la ciudadanía.
- Garantizar en su totalidad la presencia de las dos lenguas oficiales en la imagen corporativa y en el paisaje lingüístico, priorizando al euskera.
- Incrementar el uso oral del euskera, garantizando su uso con la ciudadanía y

Donostia Kultura barruko lan harremanetan erabilera handituz.

- Euskararen idatziko erabilera areagotzea, euskarazko testuen sorkuntza areagotuz.

- Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

5. Oinarri nagusiak

Honako hauek izango dira planaren oinarri nagusiak:

- Erabilera-plan honen zutabe nagusia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Jarraibideak dira. Izan ere, 86/1997 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian esaten da zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, Dekretuan ezarritako irizpideak erabilita, erakunde bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituztela.

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu Donostia Kultura erakundeak; bideak jarri behar ditu hizkuntzen berdintasunera jotzeko; eta hori lortze aldera, bereziki zainduko du herritarrari lehen atentzioa ematea, hari inolako deserosotasunik eragin gabe.

- Donostia Kulturaren Hizkuntza Ofizialen Erabilera Batzorde Orokorra eratuko da, haren berariazko eginkizuna baita planaren helburu zehatzak finkatzea, gauzatzea eta jarraipena egitea.

6. Metodologia

- Oinarritzat eta gidaritzat ditu Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- Euskara, zerbitzu hizkuntza helburua betetzera joko da lehenik, ondoren, Donostia Kulturak harremanetako hizkuntza eta lan hizkuntzan lortu nahi duena zehaztuko du erabilera planean.

aumentándolo en las relaciones laborales internas de Donostia Kultura.

- Incrementar el uso escrito del euskera, aumentando la creación de textos en dicha lengua.

- Aumentar la capacitación lingüística del personal.

5. Principios fundamentales

Los principios fundamentales del plan son las siguientes:

Los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales son el soporte fundamental del presente plan de uso. En la Disposición Adicional cuarta del Decreto 86/1997 se establece que los entes públicos de derecho privado, aplicando los criterios del dicho decreto, estudiarán los objetivos lingüísticos que hubieran de ser de aplicación en cada uno de ellos, y adoptarán las medidas tendentes a su efectivo cumplimiento.

- La entidad Donostia Kultura debe garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía; debe establecer los medios para alcanzar la igualdad entre las lenguas; y para su consecución pondrá especial énfasis en la atención a la ciudadanía, sin crearle incomodidad alguna.

- Se creará la Comisión General de Uso de las Lenguas Oficiales en Donostia Kultura, cuya función específica será concretar, llevar a cabo y realizar el seguimiento de los objetivos establecidos en el Plan.

6. Metodología

- Se basa y se guía por los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales.
- Se procurará, en primer lugar, garantizar plenamente el uso del euskera en las relaciones con la ciudadanía; asimismo se concretarán en el plan de uso los objetivos que pretenda alcanzar Donostia Kultura en los ámbitos de lengua de relación y lengua de

- Helburu hauek betetze aldera, Donostia Kulturaren Erabilera Plana egingo da eta honako gutxienekoak jasoko ditu: diagnosa, hizkuntza helburuak, parte hartzaileak eta normalizazio ekintzak.

- Donostia Kulturaren Hizkuntza Ofizialen Erabilerrako Batzorde Orokorra (aurrerantzean Erabilera Batzorde Orokorra) sortuko da, bai eta beharrezkoak diren beste egiturak ere, funtzio desberdinak gauzatzeko aldera. Bere eta honako osatura eta funtzioak izango ditu 9. atalean zehaztutakoak.

Plana garatzeko oinarri hizkuntza ofizialen erabilerrako hizkuntza jarraibideetan zehaztutako adierazleak izango dira, hauek ahalbideratzen baitituzte helburuen formulazioa eta ebaluaketarako oinarriak.

7. Betekizunak

86/1997ko Dekretuaren 17. artikuluan, herri-administrazioek gutxienez bete beharreko helburuak ezartzen ditu, erakundeak nahitaez bete beharreko indizearen bitartez. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez:

$$\text{Euskaldunak} + (\text{Ia Euskaldunak}/2)$$

Une honetan Donostiako administrazioek bete beharreko indizea %53,66koa da, 2006 urteko zentsuaren datu soziolinguistikoen arabera.

Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea [%45 - %70] tartekoa denean, Donostiako Udalaren kasua, administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz.

Bestalde laugarren xedapen gehigarriak honela dio:

“Laugarrena.– 1.– Euskal Autonomia Elkarte

trabajo.

- Con el fin de cumplir dichos objetivos, se creará un Plan de Uso en DK, donde se recogerán como mínimo los siguientes aspectos: diagnóstico, objetivos lingüísticos, participantes y actuaciones de normalización.

- En DK se creará una Comisión General de Uso de Lenguas Oficiales (en adelante Comisión General de Uso), así como otras estructuras que sean necesarias para el cumplimiento de las diversas funciones. Su composición y funciones se especifican en el punto 9.:

Los indicadores establecidos en los criterios lingüísticos de uso de las lenguas oficiales serán la base para el desarrollo del plan, porque posibilitan la formulación de los objetivos y su evaluación.

7.- Deberes

El Decreto 86/1997, en su artículo 17, establece los objetivos mínimos que las entidades deberán alcanzar, por medio de un índice de obligado cumplimiento. Este índice viene determinado por los datos sociolingüísticos de población recogidos en el Censo o Estadística de Población y Vivienda y se establece de la siguiente manera:

$$\text{Euskaldunes} + (\text{Cuasi Euskaldunes}/2)$$

El índice de obligado cumplimiento de las administraciones de Donostia es actualmente del 53,66% según los datos sociolingüísticos del censo del año 2006.

Cuando el índice de obligado cumplimiento de la entidad sea de entre un [45 % - 70 %], caso del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, deberá garantizarse la atención en euskera al administrado/a, tanto oralmente como por escrito.

Además la Disposición Adicional cuarta del Decreto establece:

“Cuarta.– 1.– Las sociedades públicas y los

herri administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, nahita nahiez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dute herritarrekin harreman zuzenak dituzten zerbitzuetan.

2.– Helburu hori betetzeko, elkarte publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, Dekretu honetan ezarritako irizpideak erabilia, erakundeetako bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituzte. Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailordetzari emango diote.”

Horretaz, Donostia Kulturak aipatutako betekizun horiek bere egiten ditu.

8. Lehentasun komunikatiboak

Azterketa komunikatiboa egiteko hona hemen gidari izango litzatekeen hurrenkerak:

- Lanpostuko eginkizunak betetzean herritarrekin izaten den harremana: ahoz zein idatziz.
- Lanpostuko eginkizunak betetzean, harreman-sare handia dutenak, Administrazioaren barruan izan edo kanpoan izan.

• Eragin handiko komunikazioak:

- ✓ Maiztasun handikoak (behin eta berriro errepikatzen direnak)...
- ✓ Zabalkunde handikoak (leku eta lagun askorengana heltzen direnak)...
- ✓ Idazki askotarako oinarri direnak (ordenantzak, planak...)...
- ✓ Aplikazio informatikoetan sartuko direnak...
- ✓ Sailaren irudi korporatiboan eragina dutenak (web orrian azalduko direnak, aldizkariak, iragarkiak, argitalpenak...)...

• Donostia Kulturaren ikuspuntutik,

entes públicos de derecho privado dependientes de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi que presten servicios públicos vendrán obligados a garantizar la utilización del euskera y del castellano en aquellos servicios que conlleven una relación directa con el usuario.

2.– Para ello dichas sociedades públicas y entes públicos de derecho privado, aplicando los criterios del presente decreto, estudiarán los objetivos lingüísticos que hubieran de ser de aplicación en cada uno de ellos, y adoptarán las medidas tendentes a su efectivo cumplimiento, dando cuenta de ello a la Viceconsejería de Política Lingüística”.

Así Donostia Kultura hace suyos los deberes aquí relacionados.

8. Prioridades comunicativas

A continuación se detalla el orden que puede seguirse para realizar el análisis comunicativo:

- La lengua de relación con la ciudadanía en el desarrollo de las funciones del puesto: tanto oralmente como por escrito.
- Aquellas que requieran de una red relacional amplia a la hora de llevar a cabo las funciones del puesto, tanto dentro como fuera de la Administración.

• Comunicaciones de especial trascendencia

- ✓ Muy frecuentes (que se repiten a menudo)...
- ✓ De gran difusión (que llegan a un gran número de lugares y personas)...
- ✓ Que sirven de modelo para otros escritos (ordenanzas, planes...)...
- ✓ Que formarán parte de aplicaciones informáticas...
- ✓ Que tienen efecto en la imagen corporativa de la entidad (las que aparecerán en la página web, revistas, anuncios, publicaciones...)...

• Otras comunicaciones que se consideren

lehenesteko modukoak diren beste komunikazio batzuk.

Beste era batera esanda: euskararen erabilera normalizatzeari begira, Administrazioako langileen komunikazio bat (ahozkoa zein idatzizkoa) lehenestuzkoa izango da baldin eta herritarrei edo euskara lehenesten duten atal edo administrazioei zuzentzen bazaie; edota, maiztasuna edo garrantzia kontuan izanda, eragin handia badu.

Edozein kasutan ere, azterketa komunikatibo hori modu errealistan egingo da, ezinezkorik ezarri gabe, jardunbideen norabidea, harreman-sarea eta transbertsalitatea bere osoan ondo begiratuta, euskararen katea eten ez dadin.

9.- Antolakuntza-egiturak

Planak jasotzen duena garatzeko eta inplementatzeko ondoko antolakuntza-egiturak osatuko dira:

1. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzorde Orokorra (6. atalean aipatua eta, hemendik aurrera Erabilera Batzorde Orokorra)
2. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzorde Teknikoa (hemendik aurrera Erabilera Batzorde Teknikoa)
3. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Tokiko Batzordeak (hemendik aurrera Tokiko Erabilera Batzordeak)

9.1 Donostia Kulturako Erabilera Batzorde Orokorra

Batzordeak ondoko osaketa du:

- Kulturako ordezkaria
- Donostia Kulturako zuzendaria
- Donostia Kulturako Baliabideen arduraduna
- Donostia Kulturako 3 ordezkari sindikal

Batzordea paritarioa izango da eta guztira sei kideekin osatuko da; beraz, Donostia

prioritarias desde el punto de vista de Donostia Kultura.

Dicho de otro modo: de cara a la normalización del uso del euskera, una comunicación del personal de la Administración (oral o escrita) será prioritaria si se dirige a la ciudadanía o a unidades o administraciones que priorizan el euskera; o aquellas que, teniendo en cuenta su frecuencia o importancia, tengan gran repercusión.

En todo caso, dicho análisis comunicativo se realizará de modo realista, sin establecer objetivos inalcanzables, analizando en su integridad el sentido de los procedimientos, la red relacional y la transversalidad de manera que la comunicación en euskera no se vea interrumpida.

9.- Estructuras organizativas

Se crearán las siguientes estructuras organizativas para el desarrollo e implementación de lo establecido en el Plan:

1. Comisión General de Uso de Lenguas Oficiales (citada en el punto 6 y en adelante Comisión General de Uso)
2. Comisión Técnica de Uso de Lenguas Oficiales (en adelante, Comisión Técnica de Uso)
3. Comisiones Locales de Uso de Lenguas Oficiales (cita en adelante, Comisiones Locales de Uso)

9.1 Comisión General de Uso Donostia Kultura

La composición será:

- Delegado/a de Cultura
- Director/a de Donostia Kultura
- Responsable de Recursos
- 3 representantes sindicales de Donostia Kultura

La composición de la Comisión será paritaria y estará compuesta de seis personas; por tanto,

Kulturaren ordezkariak hiru kide eta langileen ordezkariak beste hiru kide izango ditu. Bakoitzari dagokion ordezkia izendatzeko aukera izango dute. Horrez gain, bertan asistentzia tekniko egongo da, Hizkuntza Normalizatzeko teknikari batekin, bertako plantilakoa, edo kanpoko enpresa baten bidez.

Puntualki, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren ordezkariaren batek parte hartu ahal izango du aholkularitza tekniko emateko eta Udalak hartzen dituen neurri eta irizpideekiko koherentzia bermatzeko.

Eskumenak berriz, ondokoak dira:

- Donostia Kulturako euskararen egoeraren diagnosis egingo du,
- Planaren helburuak betetze aldera, Donostia Kulturako helburuak eta lehentasunak proposatuko ditu.
- Donostia Kulturaren erabiliko diren estrategiak eta baliabideak proposatuko ditu.
- Erabilera planaren jarraipena egingo du.

9.2. Donostia Kulturako Erabilera Batzorde Teknikoa

Beti ere, zuzendaria edo bere ordezkari izenda dezakeen langileaz gain, ardura eta maila desberdinetako hainbat langilez, Tokiko Erabilera Batzordeetako ordezkari, osatuko da batzordea.

Donostia Kulturak, kanpoko enpresa baten bitartez edo bertako langile bat edo batzuen bitartez, batzorde hauen dinamizazioa eta gidaritza eta euskara plana gauzatzeko dinamizazioa eta koordinazioa bermatuko ditu.

Batzorde honek euskararen erabilera plan

tres en representación de Donostia Kultura y otras tres corresponderán a la representación sindical. Se podrán nombrar personas suplentes. Además participará la asistencia técnica mencionada, un/a técnico/a de normalización lingüística, de la propia plantilla, o a través de una empresa externa.

De manera puntual, un/a representante del Servicio Municipal de Euskera podrá tomar parte en la Comisión, para ofrecer asesoría técnica y garantizar la coherencia de las medidas y criterios adoptados por el Ayuntamiento.

Funciones:

- Realizará el diagnóstico de la situación del euskera en Donostia Kultura.
- Propondrá los objetivos de Donostia Kultura y las prioridades con el fin de cumplir los objetivos del plan.
- Propondrá las estrategias y los recursos que se utilizarán en Donostia Kultura.
- Realizará el seguimiento del plan de uso.

9.2. Comisión Técnica de uso de Donostia Kultura

En cualquier caso, la comisión estará formada por director/a o persona en quien delegue, y por un número de personas de la plantilla con diferentes niveles y responsabilidades, representantes de las Comisiones Locales de Uso.

Donostia Kultura dinamizará y liderará estas comisiones y garantizará la dinamización y la coordinación necesaria para desarrollar el plan de euskera. Para ello se valdrá de los servicios de una empresa externa o a través de una persona o de varias de su plantilla.

Dicha comisión detallará los planes de uso del

zehatza egingo du, plan honetan ezarritako helburuak lortze aldera eta hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak gidarizat hartuta.

Ondokoak izango dira eskumenak:

- Donostia Kulturako euskararen egoeraren diagnosiaren zirriborroa egitea, egoeraren azterketa prestatze aldera
- Planaren xede nagusia eta helburu orokorrak betetze aldera, Donostia Kulturako helburuak eta lehentasunak aurrera eramatea
- Batzorde orokorretik eratorritakoak betetze aldera behar diren estrategiak eta baliabideak erabiltzea
- Jarraipena egitea

9.3. Tokiko Erabilera Batzordeak

Osaera:

Zerbitzu edo ataleko zuzendaria eta bertako langileak.

Eskumen nagusia:

Donostia Kulturarako euskararen erabilera plana zehaztea, plan honetan ezarritako helburuak lortze aldera eta hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak gidarizat hartuta.

10.- Planaren jarraipena eta ebaluaketa

Donostia Kulturako Erabilera Batzorde Orokorrak dagokion ebaluaketa egingo du urtero.

Jarraipena eta ebaluaketa egiteko Donostia Kulturako Erabilera Batzorde Orokorrak, besteren artean, honako adierazle hauek erabiliko ditu:

1. Motibazio adierazleak:
 - a) 9. Puntuari aipatzen diren Erabilera Batzorde desberdinen bilerak
 - b) Arduradun teknikoaren sentsibilizazio ekintzak, trebakuntza saioak, eskaintako

euskera, teniendo como objeto el cumplimiento de los objetivos del plan y tomando como referente los criterios de uso de las lenguas oficiales.

Tendrá las competencias siguientes:

- Realizar el borrador de diagnóstico de la situación del euskera en Donostia Kultura
- Con el fin de cumplir la finalidad general y los objetivos generales del plan, llevar a cabo los objetivos y las prioridades de Donostia Kultura.
- utilizar las estrategias y recursos necesarios para cumplimentar todo aquello que se derive de la Comisión General.
- Llevar a cabo el seguimiento

9.3. Comisiones Locales de Uso

Composición:

Director/a del servicio o unidad y trabajadores/as del mismo.

Competencia principal:

Concretar el plan de uso del euskera de Donostia Kultura, con objeto de cumplir los objetivos de este plan marco y tomando como guía los criterios de uso de las lenguas oficiales.

10.- Seguimiento y evaluación del plan

La Comisión General de Uso de Donostia Kultura realizará su evaluación anual.

La Comisión General de Uso del Euskera de Donostia Kultura, utilizará, entre otros, los siguientes indicadores de cara al seguimiento y a la evaluación.

1. Indicadores de motivación
 - a) Reuniones de las diferentes Comisiones de Uso mencionadas en el punto 9.
 - b) Acciones de sensibilización de los y las responsables técnicos, cursos o sesiones de capacitación lingüística, recursos que se

bitartekoak.

2. Ezagupen adierazleak:
 - a) Lanpostuen hizkuntz eskakizunak gainditzen dituzten langileak.
 - b) Lanpostuak hornitzerakoan eta beste lanpostura lekualdatzean lanpostuen hizkuntza eskakizuna gainditu dituzten langileak.
3. Erabilera adierazleak:
 - a) Harrera hizkuntza.
 - b) Zerbitzu hizkuntza.
 - c) Lan hizkuntza..3
4. Kontratazio administratiboen adierazleak.
5. Donostiari begirako urteko ekimenen adierazlea.

11.- Baliabideak

Donostia Kulturako Euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, beharrezkoak izango dira giza baliabideak eta baliabide materialak.

Besteak beste, honakoak izango dira baliabide nagusiak:

11.1 Giza baliabideak:

- Erabilera plana aurrera eramateko dokumentu honen II. Ataleko 9. puntuan aurreikusten diren antolakuntza egituretan parte hartuko duten langileak.
- Erabilera Plana bideratzeko (planaren diseinua, garapena, dinamizazio lanak, trebakuntza, aholkularitza...) Donostia Kulturak erabaki beharko du bertako langileren bat jartzen duen ala kanpoko enpresa batera jotzen duen.
- Kanpoko baliabideak: ikastaro berezietarako euskaltegiako irakasleak,...

han ofrecido.

2. Indicadores de conocimiento
 - a) Trabajadores/as que superan los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo
 - b) A la hora de cubrir puestos de trabajo o realizar traslados, el número de trabajadores/as que han acreditado el perfil lingüístico.
- 3.- Indicadores de uso
 - a) Lengua de recepción
 - b) Lengua de servicio
 - c) Lengua de trabajo
4. Indicadores de la contratación administrativa
5. Las actividades anuales que se organizan de cara a la ciudad

11.- Recursos

Será necesario disponer de una serie de recursos humanos y materiales para llevar a cabo el Plan de Uso del Euskera del Donostia Kultura de Donostia-San Sebastián.

Entre otros, los principales recursos serán los siguientes:

11.1 Recursos humanos:

- Personal que tomará parte en las estructuras organizativas previstas en el punto 9 de la sección II del presente documento, para el desarrollo del plan de uso.
- Para llevar a cabo el plan (su diseño, desarrollo, labores de dinamización, preparación, asesoramiento...), Donostia Kultura adoptará la decisión de contratar los servicios de una empresa externa o asignar dicha tarea a alguna persona de su plantilla.
- Recursos externos: profesorado de

euskaltegis para cursos específicos...

11.2 Baliabide materialak

- Donostia Kulturak diru partida bat gordeko du urte bakoitzerako aurreikusten diren ekintzak bideratzeko, beti ere, langileen euskalduntzea eta trebakuntzara, euskararen erabilerara, euskarazko sorkuntzara eta sentsibilizaziora bideratuak (ikastaro arruntak, ikastaro berezituak, informazio euskarriak, e.a.)

11.2 Recursos materiales

- Donostia Kultura, reservará una partida para llevar a cabo las actuaciones de normalización que se prevean para un ejercicio, dirigidas siempre a la euskaldunización y la formación específica dirigida a los y las trabajadores para que desempeñen su trabajo en euskera, al uso del euskera, creación en euskera y sensibilización (cursos específicos, soportes informativos, etc.)

III.- PLANAREN IRIZPIDEAK CRITERIOS DEL PLAN

1.- Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak

Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak izanik, helburua bi hizkuntzen benetako aukera-berdintasunera iristea da.

Irizpide nagusia, euskaraz egin daitekeena euskaraz egitea izango da; hau da, gaitasunak ahalbidetzen duen neurrian euskara erabiliko da, beti ere legeek diotena errespetatuz eta aipatzen dituzten hizkuntz eskubideak bermatuz.

Donostia Kulturak baliabide asko bideratu ditu bere langileak euskalduntzera. Egin den inbertsio horri etekina ateratzeko modurik eraginkorrena ikasitako hori praktikan jartzea da. Beraz, langileen hizkuntza gaitasunak ahalbidetzen duen neurrian, idatzizko dokumentazioa, bilerak eta abar euskaraz egingo dira. Kontua da ezagupenetik erabilerarako jauzia egiten joatea.

Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak behar-beharrezkoak dira Donostia Kulturak hizkuntza ofizialen erabilera orekatu bat izan dezan.

Ondoren, datozen orrialdeetan ematen diren irizpideen egitura zerrendatzen da:

I. Kapituluak. Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpide orokorrak

1. Eragin-eremua
2. Zerbitzu-hizkuntza, harreman-hizkuntza eta lan-hizkuntza
3. Donostia Kultura hizkuntza

1.- Criterios de aplicación del uso de las lenguas oficiales

Partiendo del hecho de que el euskera y el castellano son lenguas oficiales, el objetivo es llegar a una igualdad de oportunidades real entre ambas.

Se establece como criterio que cuando las condiciones lo permitan se utilice el euskera: es decir, siempre que la capacitación lingüística lo posibilite se utilizará el euskera, respetando, en cualquier caso, los dictados de las leyes y garantizando los derechos lingüísticos reconocidos por las mismas.

Donostia Kultura ha invertido mucho de cara a la euskaldunización de su personal. Y para que esa inversión sea efectiva, la mejor manera es llevar a la práctica lo que se ha aprendido. Por tanto, siempre que la capacitación lingüística de los y las trabajadores lo posibiliten, la documentación escrita, las reuniones,.. se llevararán a cabo en euskera. La cuestión estriba en dar el salto del conocimiento al uso.

De cara a un uso equilibrado de las dos lenguas oficiales en y por Donostia Kultura, son absolutamente imprescindibles las pautas para la utilización de esas lenguas.

A continuación, se relaciona la estructura de los criterios que se ofrecen en las páginas siguientes:

Capítulo I. Criterios generales sobre el uso de las lenguas oficiales.

1. Ámbito de aplicación
2. Lengua de servicio, lengua de relación, lengua de trabajo
3. Donostia Kultura, modelo en la

normalkuntzaren eredu.

4. Kalitatezko komunikazioak
5. Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak
6. Donostia Kulturaren harreman komunikatiboak
 - 6.1 Ahozko komunikazioa
Zerbitzu-hizkuntza, harreman-hizkuntza, lan-hizkuntza
 - 6.2 Idatzizko komunikazioa
Erakundea hartzaile eta igorle denean.
Komunikazio telematikoak

II. Kapituluak. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta itzulpen irizpideak

7. Hizkuntza ofizialen erabilera eta itzulpen irizpideak

III. Kapituluak. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak beste zenbait jarduera-esparrutan.

8. Langileen prestakuntza orokorra
9. Erregistroa
10. Dirulaguntzak
11. Argitalpenak
12. Tresna eta aplikazio informatikoak
13. Internet eta intranet sarea
14. Errotulazio finkoa eta noizbehinkako oharrak
15. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak
16. Izen ofizialak
17. Donostia Kulturak antolatutako jendaurreko ekitaldiak
18. Donostia Kulturak zuzenean kudeatzen dituen zerbitzuak eta jarduerak
19. Kontratazio administratiboak
20. Donostia Kulturaren instalazioen eta materialen erabilera
21. Donostia Kulturak lagatako lokaletako hizkuntza betebeharrak

IV. Kapituluak. Hizkuntza ofizialen erabilerarako kudeaketa.

22. Kudeaketa

normalización lingüística

4. Comunicaciones de calidad
5. Medidas para resaltar el euskera en las comunicaciones bilingües
6. Relaciones comunicativas de Donostia Kultura
 - 6.1 Comunicación oral.
Lengua de servicio, lengua de relación y lengua de trabajo
 - 6.2 Comunicación escrita.
Cuando la entidad es receptora y emisora.
Comunicaciones telemáticas

Capítulo II. Criterios de uso de las lenguas oficiales y criterios de traducción

7. Uso de las lenguas oficiales y criterios de traducción

Capítulo III. Criterios para el uso de las lenguas oficiales en otros ámbitos de actuación.

8. Formación continua del personal
9. Registro
10. Subvenciones
11. Publicaciones
12. Herramientas y aplicaciones informáticas
13. Redes de internet e intranet
14. Rotulación permanente y avisos puntuales
15. Anuncios, publicidad y campañas
16. Denominaciones oficiales
17. Actos públicos organizados por Donostia Kultura
18. Servicios gestionados directamente por el Donostia Kultura
19. Contratos administrativos
20. Uso de instalaciones y material de Donostia Kultura
21. Condiciones lingüísticas de los locales cedidos por Donostia Kultura

Capítulo IV. Gestión del uso de las lenguas oficiales.

22. Gestión

I. Kapituluak. Hizkuntza ofizialen erabilerari Buruzko jarraibide orokorrak

1. artikulua.- Eragin-eremua

Donostia Kulturako atal guztiek bete behar dituzte arau hauek.

Jarraibideok Donostia Kulturako harreman ofizial eta protokolozkoak dituzte helburu, hau da, Donostia Kulturako langileek eta ordezkariak beren laneko zereginetan dituzten harreman guztiak.

2. artikulua.- Zerbitzu-hizkuntza, harreman-hizkuntza, lan-hizkuntza

Euskara, bere osoan, lanerako hizkuntza izatea helburu baldin badugu, zera izan beharko du:

- Zerbitzu-hizkuntza herritarrekin.
- Harreman-hizkuntza administrazioekin.
- Donostia Kulturako barruko lan-hizkuntza.

Hortaz, gaitasunak ahalbidetzen duen neurrian, euskaraz lan egitera joko da.

3. artikulua. Hizkuntza- normalkuntzaren eredu

Gaztelania eta euskara Donostia Kulturako hizkuntza ofizialak izan arren eta ofizialtasuna egiazkoa eta eraginkorra bilakatzeko bideak urratsak eman diren arren, oraindik gaztelaren nagusitasuna Administrazio moduan nabaria da. Egoera hori orekatu nahian Donostia Kulturak berebeziko ahalegina egin du langileak gaitzeko, eta ahaleginak egin beharko ditu euskararen erabilera sustatzeko, beti ere Donostia Kulturako erabilera planetan adostutakoa kontuan harturik.

4. artikulua.- Kalitatezko komunikazioak

Capítulo I. Criterios generales sobre el uso de lenguas oficiales

Artículo 1.- Ámbito de aplicación

Estos criterios son de obligado cumplimiento para todas secciones de Donostia Kultura

Las presentes instrucciones tienen como objeto las relaciones oficiales y protocolarias de Donostia Kultura, es decir, todas las relaciones que mantienen el personal y sus representantes en sus quehaceres laborales.

Artículo 2.- Lengua de servicio, lengua de relación, lengua de trabajo

Si aspiramos a que el euskara, en su conjunto, sea lengua de trabajo, deberá ser:

- Lengua de servicio con los ciudadanos y ciudadanas.
- Lengua de relación con administraciones.
- Lengua de trabajo interno en Donostia Kultura.

Por tanto, siempre que la capacitación lo permita, se tenderá a trabajar en euskara.

Artículo 3.- Modelo en la normalización lingüística

A pesar de que el euskara y el castellano son lenguas oficiales de Donostia Kultura y a pesar de que se han dado pasos para que la oficialidad sea real y efectiva, todavía se mantiene la primacía del castellano en su calidad de Administración. Para equilibrar esa situación, Donostia Kultura ha realizado grandes esfuerzos para acreditar la capacitación lingüística de su plantilla y deberá seguir haciéndolos para impulsar el uso del euskara, siempre de acuerdo a lo acordado en los planes de uso de Donostia Kultura.

Artículo 4. Comunicaciones de calidad

Kalitatezko komunikazio idatzia sustatu nahi da Donostia Kulturaren; hau da, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak.

Helburua komunikatzea da: hartzaileak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik.

Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafoa, lege-aipamenak oin-ohar modura. Testuak zuzena izan behar du eta idazkiaren diseinua zaindu egin behar du irakurgarritasuna bermatzeko.

5. artikulua.- Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak

Donostia Kulturak sortutako komunikazioetan, beharrezko neurriak hartuko dira euskara nabarmentzeko. Horretarako badira, gutxienez, bi bide nagusi:

-- Kokapena: hitzak direnean, euskara aurrean edo gainean; zutabeak direnean, ezkerrekoa euskararentzat; eta bi orrialde direnean, eskuinaldekoa euskararentzat.

-- Tipografia: normalizatuak ez diren idatzietan letraren neurria eta mota erabil daitezke euskara nabarmentzeko. Idatzi normalizatuetan, tipografia berean letra lodia erabiliz nabarmendu ahal izango dira euskarazko testuak.

6. artikulua.- Donostia Kulturaren harreman komunikatiboak

Donostia Kulturak hiru harreman mota ditu ardatz bere eguneroko zereginak betetzean: herritarrak, administrazioak eta Donostia Kultura barrukoa (atalen artekoa edota atal

Se pretende fomentar la comunicación escrita de calidad en Donostia Kultura, es decir, que los textos sean correctos, naturales, adecuados y claros.

El objetivo es comunicar: la persona receptora debe entender lo que se le dice a la primera, tanto de modo oral como escrito. El texto debe ser adecuado desde el punto de vista comunicativo.

El texto dispondrá de una estructura lógica, y dicha estructura quedará manifiesta utilizando las siguientes estrategias: títulos y subtítulos, disposición de ideas en párrafos, utilización de notas al pie para hacer referencias legislativas, etc. Los textos deben ser correctos y es preciso cuidar el diseño del texto para facilitar su legibilidad.

Artículo 5. Medidas para resaltar el euskera en las comunicaciones bilingües

En las comunicaciones producidas por Donostia Kultura se tomarán las medidas necesarias para resaltar el euskera. Para ello, pueden emplearse, como mínimo, dos estrategias:

-- La ubicación: en el caso de las palabras, las que aparezcan en euskera pueden ir delante o encima; en caso de tratarse de columnas, la de la izquierda estaría reservada al euskera; y en caso de ser dos páginas, correspondería al euskera la de la derecha.

-- La tipografía: en comunicaciones no normalizadas puede utilizarse el tamaño y el tipo de letra para destacar el texto en euskera. En los documentos normalizados los textos en euskera se podrán resaltar utilizando la misma tipografía que en castellano pero en negrita.

Artículo 6. Relaciones comunicativas de Donostia Kultura.

Donostia Kultura mantiene tres tipos de relaciones comunicativas en su quehacer diario: las relaciones con la ciudadanía, las relaciones con las administraciones y las relaciones

barruan). Harreman horiek, oro har, bi eratara gauzatzen dira: ahoz eta idatziz (bigarren kasu honetan batez ere, arreta berezia jarri beharko zaio komunikazio telematikoari)

6.1. Ahozko komunikazioa

Ahozko harreman-mota guztietan (telefonoz, harrera-lekuetan...), euskaraz egingo dute lehen hitza Donostia Kulturako langileek, eta gero, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko dute. Beti errespetatuko dute solaskidearen hizkuntza-aukera, inolako deserosotasunik eragin gabe.

a) Herritarrari zerbitzua ematen zaionean, euskarazko harrera eta jarduna bermatuko da.

Herritarrari harrera egin behar dion langilea lehenik euskaraz mintzatuko da eta herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du, herritarrak hizkuntza ofizialak erabiltzeko daukan aukera eskubidea bermatuz.

Era berean, telefonoa hartzerakoan, langileak lehen hitza euskaraz egingo du eta herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du.

Euskararik ez dakien langile bati herritarren bat euskaraz mintzatzen zaionean edota euskaraz jardun nahi duela adierazten badio, langile horrek bere inguruko lankide elebidunei eskatuko die laguntza.

Edonola ere, Donostia Kulturako langileek ezin izango diete eskatu herritarrei hizkuntza batean edo bestean jarduteko. Aitzitik, herritarrak hautatutako hizkuntzan bideratuko du langileak zerbitzua.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak, erantzungailu automatikoz, bozgorailuz eta antzerako bitartekoez zabalduetakoak, euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, zehaztutako ordena berean.

b) Administrazioen arteko harremanetan,

internas de la propia DK. Dichas relaciones se desarrollan, oralmente y por escrito (en este segundo caso, han de tenerse en cuenta muy especialmente las comunicaciones telemáticas

6.1. Comunicación oral

El personal del Donostia Kultura dispensarán en euskera la primera atención en todo tipo de relaciones orales (telefónicas, en áreas de recepción, etc.), y se continuará en la lengua que elija la persona interlocutora. Se respetará en todos los casos la opción lingüística de la persona interlocutora, sin crear en él o ella ningún tipo de incomodidad.

a) En el servicio ofrecido a la ciudadanía se garantizará la recepción y la atención en euskera.

El personal que atienda al público se dirigirá a éste en primer lugar en euskera y proseguirá en la lengua elegida por la persona atendida, garantizándole el derecho a utilizar la lengua oficial que elija.

Asimismo, el personal contestará el teléfono en euskera y continuará en el idioma por el cual opte la persona que ha llamado.

